



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/01/07



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2026/01/07

2025EKO AZAROAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko azaroaren 25ean, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Julen Beunza Arano alkate ordearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Iker Isiegas eta Javier Auza.

BERTARATU EZ DIRENAK: Santos Etxegia, M^a Mar Ansorena, Mikaela Elizalde eta Alaia Etayo.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAIZERREDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Urriaren 29ko ohiko batzarren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

-2025/ 114 alkate ebazpena baimena emanaz Inna Valchenkori Arraratsko 14. Poligonoko 5. Lursailean itxidura perimetrala jartzeko.

-2025/115 alkate ebazpena lhabengo 3. Poligonoko 279 lursailean 4 ardi edukitzea jarduera abeltzaintzako ustategi estentsiboa kaltegabe deklaratzeko Andoni Aizkorberen izenean.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/01/07



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2026/01/07

-2025/116 alkate ebazpena Ihabengo 3. poligonoko 321. lursailean dagoen zaldi ustiapenaren irekiera baimena, Lourdes Munarriz Larrionen izenetik Javier Osinaga Munarrizen izenera pasatzeko.

-2025/117 alkate ebazpena Itsasoko 4. poligonoko 479. lursailean dagoen jarduera baimena, M^a Luisa Mariñelarena Cia-ren izenetik Jon Biurarena Mariñelarenaren izenera pasatzea.

-2025/118 alkate ebazpena Udabeko 1. Poligonoko 84. Lursailean (egun Udabeko 1. poligonoko 91. Lursaila) dagoen behi esneen ustiapenaren anplazioaren iharduera, SAT UDABERA elkartetik ARISTEGUI P&F E71515456 IFZ zenbakia duen elkartearen izenera aldatzeko.

-2025/119 alkate ebazpena Beñat Dorai Urritzari obra baimena onartzea Beramendiko 2. Poligonoko 21. Lursailean dagoen etxebizitza eraberritzeko 90.682,54 euroko aurrekontuarekin.

-2025/120 alkate ebazpena Joan Mora Navarrok aurkeztutako eskaera onartzea eta luzatzea Ihabengo 3. Poligonoko 270. Lursailean dagoen etxebizitza eraberritzeko obra hasteko epea 6 hilabetez.

-2025/121 alkate ebazpena Alaia Etayo Oronoz eskuordetzea 2025/3 zenbakidun ezkontza zibila egiteko.

-2025/122 alkate ebazpena bertan behera uztea 115. ebazpena non kaltegabea aitortzen den Ihabengo 3. Poligonoko 279. Lursailean 4 ardirako ustiapena.

-2025/123 alkate ebazpena Ihabengo 3. Poligonoko 279 lursailean 4 ardi edukitzea jarduera abeltzaintzako ustiategi estentsibo eta, beraz, KALTEGABE deklaratzeko Nerea Aizkorberen izenean.

-2025/124 alkate ebazpena Ihabengo 3. Poligonoko 268C. lursailean 6 oilo edukitzea, etxeko abeltzaintza instalazioa deklaratzeko, eta Javier Ignacio Beunza Larumberi jarduera kaltegabeko lizentzia emanaz.

-2025/125 alkate ebazpena onartuz 168 m²ko bide publikoa sortzea 88,89 eta 289. lursailen artean eta ere 7 m²ko guneko publikoa, izendatzea 3. Poligonoko 289. Lursailaren barruan.

-2025/126 alkate ebazpena onartuz NUFK-etik jasotako mozioa azaroaren 25eko indarkeri sexistaren inguruan.

-2025/127 alkate ebazpena Igoako UA 2 unitateko urbanizazio obrak egiteko EIOZ-ren likidazioa eta obra baimenaren tasak onartuz.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

3.- Ttikiena haur eskolako hezitzaileak ordezkatzeko zerrenda.

Alkate ordeak gogoratzen die bildutakoek aurreko batzarre batean ordezkapenetarako zerrendak egiteko prozesuari hasiera eman nahi zitzaiola eta horretarako zerrenda





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/01/07

SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROIONZ
2026/01/07

irekiak egiteko baldintza plegua ere prestatu zela. Batzarre horretan zinegotzi batek informatu zuen Atarrabiako udalean horrela atera nahi izan zutela eta deialdiari helegitea jarri ziotela, hortaz oposizio bidezko baldintza plegua prestatu da, Hezkuntza Batzordea eta haur eskolako zuzendariarekin. Aurreko zerrendak 2017koak izanik bertan daudenak jada hezkuntzan daude lanean eta ez dira erabilgarriak egun, horregatik zerrenda berriak egitearen beharra.

Pleguan adierazten da test moduko azterketa egingo dela, eta gaizki erantzundakoek ez dutela punturik kenduko. Gutxienez 30 puntu jaso beharko dira azterketa gainditzeko eta gainditzeko ez dutenak zerrendako beheko postuetan geldituko dira.

Eskaerak aurkezteko epea, oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik, 15 egun baliodunekoa izanen da.

Epai mahia, ondorengoek osatuko dute:

Santos Etxegia, lehendakaria eta Amaia Legarra eta Alaia Etayo bokal bezala.

Hortaz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute, onartzea aho batez Ttikiena haur eskolarako hezitzaileen ordezkapenak arautuko duen baldintza plegua eta epai mahia osatzeko ondorengoak izendatzea Santos Etxegia, lehendakaria eta Amaia Legarra eta Alaia Etayo bokalak.

4.- Udaleko 1. Pisuko alokairua enkantera ateratzea.

Alkateak gai hau ogasun batzordean aztertu dela azaltzen du, urtarrila begira berriro alokairuan egoteko plegua landu eta osatu da. Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Araudiaren 115. Artikuluaren arabera, toki entitateek subasta edo konkurso bidez esleitu ahal dituzte hauen jabetasun patrimonialak, hortaz plegua onartzea eta izapidetzeari hasiera ematea dagokio batzarrari. Plegua bertan azaltzen diren irizpideak hauek izan dira:

6.- Balorazio irizpideak:

a) Basaburuan erroldatua egotea :10 puntu.

b) Emakumea izatea: 10 puntu.

c) Familia bakarra: 10 puntu.

d) Seme alabak izatea:

1: 5 puntu.

2 : 10 puntu.

3: 15 puntu.

e) Jabetasunik ez izatea: 5 puntu.

f) 30 urte baino gutxiago izatea: 10 puntu. 30-35 urte arte izatea: 5 puntu.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/01/07



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2026/01/07

Errenta 450 eurokoa izatea eta proposamenak aurkezteko epea abenduaren 29an bukatuko dela ere adosten dute bildutakoek.

Balorazio mahaia udaleko ordezkari hauetaz:

- Lehendakaria Santos Etxegia
- 1. Bokala Julen Beunza
- 2. Bokala Iker Isiegas.

Hortaz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Onartzea udaleko eraikineko lehenengo pisuan dagoen etxebizitzaren errentaren izapidetzearen tramitazioari hasiera ematea eta hortaz esleipena arautuko duen plegua onartzea alde batetik eta bestetik izendatzea balorazio mahaiko partaide bezala hauek, Santos Etxegia, Julen Beunza eta Iker Isiegas.

5.- Mozioak.

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da eta horren inguruan Euskara Zerbitzutik ondoren irakurri eta transkribatzen den adierazpen instituzionala bidali dute:

“Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, udal honek adierazi nahi du bat egiten duela ospakizunarekin. Izan ere, euskara da gure herriko ezaugarri nabarmen bat. Nolanahi ere, hizkuntza gutxitua den aldetik, erakundeon babesa behar du.

Gero eta gehiago dira euskaldunak gurean, baina jabetzen gara lan handia dugula egiteko euskararen normalizazioa egikaritu dadin. Gure eginkizuna da herritarrek euskaraz bizi ahal izateko bideak irekitzea.

Norabide horretan, gure konpromisoa da lanean jarraitzea gure bizilagunetako inor gera ez dadin euskaraz arreta jasotzeko aukerarik gabe, eta udal langileek gero eta aukera gehiago izan dezaten euskara lanean erabiltzeko. Horiek horrela, gonbidatu nahi ditugu herritarrak administrazioan euskara erabil dezaten.

Euskara da gure udalerrietako elkarbizitzarako giltzetako bat. Gure betebeharra da euskal hiztunek bereago sentitzea hizkuntza eta euskara urruti dutenei gerturatzea; halaber, bertako euskaldun kopurua handitzea, bai hezkuntza arautuaren bitartez eta bai euskaltegien bitartez.

Dagokigun ardurarengatik, udal honek bere prestutasuna agertu nahi du euskara zabalkundean lan egiteko eta xede bera duten beste erakunde zein entitateekin elkarlanean aritzeko. Auzolanean sinesten dugu. Denon eginahala da beharrezkoa lanbide honetan.

Maiz esaten da euskara altxorra dela, baina ez da museo batean edukitzekoa. Altxorra da euskara ederra den aldetik, erabilgarria eta aberasgarria. Horregatik gaurko egunean Kirmen Uribe idazlearen pasarte bat ekarri nahi dugu gogora:



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAWK RX3J UAVZ ZEEP

2025-11-25 batzarra - SEFYCU 260775

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

6tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/01/07

SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROIZ
2026/01/07

Emakume hark [Philis Levin] esan zidan bazuela euskararen berri aurretik ere, ezagutzen zituela euskaraz idatzitako testuak. (...) Harri eta zur geratu zen testuan agertzen ziren x guztiekin. Altxorraren mapa ematen du zuen hizkuntzak, esan zidan, gainontzeko letra guztiak ahaztu eta x letran soilik arreta jartzen baduzu altxorra non dagoen jakin dezakezula ematen du. Ezagutzen ez duzun hizkuntza bati buruz esan zitekeen gauzarik politena zela hura bururatu zitzaidan, altxor baten mapa dela.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute goian irakurri eta transkribatutako adierazpena.

6. - Batzordeen informazioa.

Kultura eta Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Euskara Batzordea azaroaren 3an bildu zen eta bertan azterketa soziolinguistikoaren aurkezpena kontzejuetako alkateen bileran egingo zela informatu zen alde batetik eta bestetik adierazi AEK taldeak kudeatzen duen mintzapraktika taldearen balorazioa urtarrian egingo dela.

Irakurle txikien kluba bertan behera gelditu da eta horretara bideratutako dirua, gabonetako ludoteka programarako bideratuko da.

Abenduaren 7an Apeztegiberrin bertso afaria egingo da.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Azaroaren 5ean bilera izan zuen Oihanzabal eskolako guraso elkarteko ordezkariekin. Bertan azaldu zuten bi programa abiatu zituztela urrian, biak hala biak maiatza artekoak, bat multikirolak programa eta bestea pilota eskola. 10 hurrek parte hartzen dute lehenengo programan eta 9 bigarren programan. Batzordeari ekarpen ekonomikoren bat egitea eskatu zioten eta erabakia izan zen, multikirolak programari 200 euroko laguntza ematea eta pilota eskolarentzat 10 pilota erostea laguntza moduan. Bi programen kasuan polikiroldegia erabiltzen dutenez argia udalaren gain hartzea ere erabaki zen batzordean.

Aurreko ikasturtean adinduen yogaren programan, Imanol Rekondok ikasturtea urte erdian utzi zuen arazo medikuak medio baina hori justifikatzen zuen dokumentazio aurkeztu ez zuenez dena kobratu zitzaion. Itzulketa eskatu du eta medikuaren agiria aurkeztu ondoren itzulketa onartu zaiola informatzen da.

2026ko maiatzaren 23an burutuko da BTT martxa. 2025eko Enduroren kontuak prestatzen ari da batzordea.

7.- Informazio orokorra.

Ez dago informaziorik.

8. Erregu-galderak

Ez dira egin.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/01/07

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:05 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2026/01/07



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAWK RX3J UAVZ ZEEP

2025-11-25 batzarra - SEFYCU 260775

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

6tik 6 orrialdea